

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 90. eta 91. artikulua oinarri, **trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzeko ordenantza fiskalerako ARAUDI PROPOSAMEN** hau egiten du, Udalbatzan azter dadin.

JUSTIFIKAZIOA

Neurri honekin, hobaria areagotu nahi diegu gutxien kutsatzen duten ibilgailuak erosten dituzten pertsonen, bai eta hobaria aitortzeko kontuan hartzen den baino urte gehiago kontuan hartu ere. Horrez gain, % 90 handitu nahi dugu ibilgailu elektrikoentzako hobaria, eta zerga kargaren % 50 kendu Dbizi zerbitzuaren mesedetan hirian ibilgailu elektrikoak erabiltzeari uzten dioten jabeen.

Hori dela eta, **ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALERAKO ARAUDI PROPOSAMEN** hau aurkezten dugu:

Hau jartzen duen lekuan:

10. artikulua.- Hobariak

3.- Zerga kuotaren %75eko hobaria izango dute baldintza hauetakoren bat betetzen duten ibilgailuek:

a) Motor elektrikoa edo hibridoa izatea (argindarrarekin eta gasolinarekin, argindarrarekin eta dieselarekin edo argindarrarekin eta gasarekin ibiltzen duena), etxetik bertatik homologatuta datorrena, ibilgailu mota bakoitzari dagokion katalizatze sistema dakarrena eta emisio kutsakorrak ahalik eta gehien murrizten dituen.

b) Etxetik dakarren homologazioaren arabera, gasa erretzen duen ibilgailua izatea, ibilgailu mota bakoitzari dagokion katalizatze sistema dakarrena eta emisio kutsakorrak ahalik eta gehien murrizten dituen.

Hobari hau eskatu beharrekoa da, eta, onartuz gero, ibilgailua matrikulatu eta hurrengo hiru ekitaldietan balioko du.

Hau proposatzen dugu:

10. artikulua.- Hobariak

3.1.- Zerga kuotaren %75eko hobaria izango dute baldintza hauetakoren bat betetzen duten ibilgailuek:

a) Motor elektrikoa edo hibridoa izatea (argindarrarekin eta gasolinarekin, argindarrarekin eta dieselarekin edo argindarrarekin eta gasarekin dabilena), etxetik bertatik homologatuta datorrena, ibilgailu mota bakoitzari dagokion katalizatze sistema dakarrena eta emisio kutsakorrak ahalik eta gehien murrizten dituen.

b) Etxetik dakarren homologazioaren arabera, gasa erretzen duen ibilgailua izatea, ibilgailu mota bakoitzari dagokion katalizatze sistema dakarrena eta emisio kutsakorrak ahalik eta gehien murrizten dituen.

3.2. Zerga kuotaren % 90eko hobaria izango dute motor elektrikoa duten ibilgailuek.

Hobari hau eskatu beharrekoa da, eta, onartuz gero, ibilgailua matrikulatu eta hurrengo bost ekitaldietan balioko du.

3.3. Zerga kuotaren % 50eko hobaria izango dute ibilgailuen jabeek, baldin eta Dbizi zerbitzuaren titular badira eta, erregistroaren arabera, urtean 40 ordu baino gehiago erabili badute zerbitzua.

Hobari hau eskatu beharrekoa da, eta, onartuz gero, urtero izango ditu ondorioak, betiere Dbizi zerbitzua adierazitako ordu kopuruan erabili dela egiaztatzen bada.

Donostia, 2012ko abuztuaren 1a

Borja Corominas Fisas

Udaleko Talde Popularraren bozeramailea